

INDUSTRIA-PRODUKZIOAREN INDIZEA. 2024ko IRAILA


Euskal AEko industria-jarduera % 0,4 jaitsi da 2024ko irailean

Aurreko hilaren, 2024ko abuztuaren aldean, industria-produkzioa % 1,7 gehitu da

Eustatek landutako datuen arabera, 2024ko irailean, lan-egutegiko baldintza homogeneoetan, Euskal AEko industria-produkzioa aurreko urteko hil berean izandakoa baino % 0,4 txikiagoa izan zen.

Aurreko hilaren aldean, Euskal AEko industria-jarduera % 1,7 gehitu da azken hilabete honetan, urtaroari dagozkion ondorioak zuzendu ondoren.

Euskal AEko Industria-produkzioaren indizearen urte-arteko aldakuntza-tasa (%)



Iturria: Eustat. Industria-produkzioaren indizea

Ondasunen helburu ekonomikoaren arabera, *Kontsumo-ondasunetako* produkzioak urte arteko portaera negatiboa izan zuen 2024ko irailean, eta produkzioa % 1,1 jaitsi zen sektore osoan. Beherakada hori *Kontsumo-ondasun iraunkorren* eta *Kontsumo-ondasun ez-iraunkorren* portaerak eragin du, % 5,1 eta % 0,2 jaitsi baitira, hurrenez hurren. *Kontsumo-ondasun iraunkorren* artean, altzariak eta etxeko tresnen fabrikazioa sartzen da, besteak beste. *Kontsumo-ondasun ez-iraunkorren* artean, bestalde, elikagaiak prozesatzeko eta kontserbatzeko jarduerak, garbiketarako eta higienarako produktuen fabrikazioa, farmazia-produktuak eta jantziak egitea daude.

Ekipo-ondasunen produkzioa % 4,2 igo da aurreko urteko irailaren aldean; horrek barne hartzen ditu ibilgailu motordunen fabrikazioa, tren-makinen eta trenbide-materialen eraikuntza eta aeronautika edo ontzigintza.

Bitarteko ondasunetan, metalurgia eta metalezko produktuen fabrikazioa, industria kimikoa eta kautxuzko eta plastikozko produktuen fabrikazioa barne, produkzioa % 1,8 jaitsi da.

Azkenik, *Energiaren* produkzioa % 8,7 jaitsi da 2024ko irailean, aurreko urteko hil beraren aldean. Sektore honetan sartzen dira energia elektrikoaren ekoizpena eta hornidura eta petrolioaren fintzea.

Euskal AEko Industria produkzioaren indizea lurralde historikoaren eta ondasunen helburu ekonomikoaren arabera. Aldakuntza-tasak (p). Iraila 2024

	Egutegi eraginak zuzendutako datuak		Datu desestacionalizatuak
	m / m-12	Am / A(m-12)	m / m-1
INDIZE OROKORRA			
Euskal AE	-0,4	-0,2	1,7
Araba/Álava	-2,2	-1,8	-1,0
Bizkaia	-2,3	-1,5	1,1
Gipuzkoa	2,6	2,0	3,8
ONDASUNEN HELBURU EKONOMIKOAREN ARABERAKO INDIZEAK			
Kontsumo-ondasunak	-1,1	-1,9	-0,4
Kontsumoondasun iraunkorrak	-5,1	-6,8	-3,1
Kontsumoondasun ez-iraunkorrak	-0,2	-0,8	0,1
Ekipo-ondasunak	4,2	3,2	6,1
Bitarteko ondasunak	-1,8	-1,4	-0,9
Energia	-8,7	-0,8	-0,2

(p)Behinbehineko datuak

m/m12 Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko urteko hil beraren (m-12) aldean

Am / A(m-12) Urte arteko aldakuntza-tasa, urtarrietik behatutako azken hileraren arteko metatutako aldiaren (Am), aurreko urtean pilatutako aldi beraren (A(m-12)) aldean

m / m-1 Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko hilaren (m-1) aldean

Data 2024ko Azaroaren 6a

Iturria: Eustat. Industria-produkzioaren indizea

Industria-Produkzioaren Indizearen urte arteko bilakaera, 2024ko irailean, positiboa izan da Gipuzkoan, produkzioa % 2,6 igo baita. Araban eta Bizkaian, aldiz, industria-produkzioa % 2,2 eta % 2,3 jaitsi da, hurrenez hurren.

Euskal AEko Industria produkzioaren indizea. Sektore A38 nagusiak (1). Urte arteko hazkunde-tasa (p). Iraila 2024

	m / m-12
Elikadura ind., edariak, tabakoa	5,7
Zurgintza, papera eta arte grafikoa	0,7
Kautxua eta plastikoak	-5,3
Metalurgia eta produktu metalikoak	-0,9
Materiala eta tresna elektrikoak	2,9
Makineria eta tresneria	4,8
Garraio-materiala	1,9
Energia elektrikoa, gasa eta lurruna	-9,8

(p)Behinbehineko datuak

Egutegi eraginak zuzendutako datuak

(1)Euskal Aeoko Industrian pisurik handiena duten sektoreak

Data 2024ko Azaroaren 6a

Iturria: Eustat. Industria-produkzioaren indizea

Maila bereiziagoan, Euskal AEko industrian pisu handiena duten sektoreen artean, 2024ko irailean produkzioaren jaitsiera handiena izan duten sektoreak, urte arteko terminoetan, *Energia elektrikoa, gasa eta lurruna* (% 9,8) eta *Kautxu eta plastikoak* (% 5,3) izan dira. Aitzitik, urte arteko hazkunderik handienak *Elikagaien, edarien eta tabakoaren* industrian (% 5,7) eta *Makineria eta ekipoen* (% 4,8) izan dira.

2024ko IRAILEAN METATUTAKOAREN BALANTZEA

Urteko lehen bederatzi hilabeteetan metatutakoan, Industria-Produkzioaren Indizea % 0,2 jaitsi da. Irailera arte metatutako produkzioa % 1,9 jaitsi da *Kontsumo-ondasunetan*, % 1,4 *Bitarteko ondasunetan* eta % 0,8 *Energian*. *Ekipoko ondasunek*, aldiz, bilakaera positiboa metatu dute, produkzioa % 3,2 igo baita aurreko urteko aldi metatu beraren aldean.

Lurralde historikoka, 2024ko lehenengo bederatzi hilabeteetako metatua balantze negatiboarekin itxi da Araban eta Bizkaian, produkzioa % 1,8 eta % 1,5 jaitsi baita, hurrenez hurren. Gipuzkoan, aldiz, produkzioa % 2,0 hazi da, aurreko urteko aldi metatu beraren aldean.

INFORMAZIO-OHARRA

Eustatek eskerrak eman nahi dizkie informazioa biltzen lagundu duten establezimendu guztiei. Horiei esker, hilabete honetako indizea laginaren **% 90,03ko** estaldurarekin kalkulatu da.

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

C/ Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62